

**IPARRALDEKO PILOTA
BATZORDEAN, B MAILAKO
GAZTEEN FINALAK**

Joan den larunbatean, B mailako gazteen 3 finala jokatu dira Aiherrako trinketean.

Huna emaitzak :

Umetxoak B

Corret / Supervielle-Marmose
(Abarratia)..... 40

Chipi / Calvo-Rodriguez
(Urruñarrak)..... 25



Ezkerretik eskuinerat, Beñat Chipi eta Urko Calvo-Rodriguez (Urruñarrak), Ekhi Supervielle-Malmose-Paul Corret (Abarratia) 2 batasunetako trebatzaileek inguratuz.
(Argazkia : Chantal Etchevers)

Aiherran pilotari gazte hauek frogatzen dute laguntzaile serioak badituztela beren inguruan. Oroit, gazteetan ere, Aiherrako bikote bat bazela finalean.

Kimuak B

Hiriberry / Orgogozo

(Urruñarrak)..... 27

Ithurralde / Idiart

(Oztibartarrak) 0

Oztibarre eskualdean gazteak ari dira gogor pilotan txapelkun atera baitira hiru finaletan. Urruñarrak ere bi aldiz finalean.

Gaztetxoak B

Haroçarene / Irubetagoyena

(Senpere)..... 40

Darguy /

Incagaray (Denek Bat)..... 20

Asmatzen dut Paxkalen atsegina !

Paul Corret eta Ekhi Supervielle-Malmose pilotari txapelkunak

Joan den ibiakoitz arratsaldean Aiherrako trinketean iragan ziren



Arg. (Chantal Etchevers) Ezkerretik eskuinera txapelkunak Paul Corret eta Ekhi Supervielle Malmose, Fred Bereau trebatzailearen inguruan

Ipar Aldeko batzordeak antolatu B mailako txapelketaren finalak. Abarratia batasunaren kontu, umetxoetan ari ziren Paul Corret eta Ekhi Supervielle-Malmosek, txapela ereman dute partida ederra eginik, Urruñarrak batasuneko Beñat Chipi eta Urko Calvo-Rodriguez gazteen kontra

40/25 nagusiturik. Biba zuek txapelketa ederra eginik eta txapela eremanik. Aupa Abarratia!